

5/2019. AKTA
NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOAREN BATZORDE BETEARAZLEAK UZTAILAREN
16n EGINDAKO BILERA

BERTARATUAK:

PRESIDENTEA:

Pablo Azcona Molinet jn., Lodosako alkatea

LEHENENGO PRESIDENTEORDEA:

Oscar Bea Trincado jn., Cintruenigoko alkatea

MAHAIKIDEAK:

Angel Martin Unzue Ayanz jn., Agoizko alkatea

Jose Otermin Echarri, Aresoko alkatea

Iñaki Arguiñano Azcona jn., Artazuko alkatea

Cristina Recalde Vallejo and., Artikako alkatea

David Alvarez Yanguas jn., Castejongo alkatea

Nieves Recalde Zaratiegi and., Etxagueko presidentea

Miguel Aguirre Yanguas jn., Fiteroko alkatea

Pedro Jose Soto Eguren jn., Gesalazko alkatea

Mario Fabo Calero jn., Martzillako alkatea

Ana Elizalde Urmeneta, Iruñeko zinegotzia

Jesus Maria Arruzubieta Astiz jn., Tafallako alkatea

Cruz Moriones Uriz jn., Ustazeko presidentea

Yolanda Gonzalez Garcaa, Vianako alkatea

Ezin etorria adierazi dute:

Jesus Maria Rodriguez Gomez jn., Ribaforadako alkatea

Jose Irigaray Gil jn., Aurizko alkatea

IDAZKARIA:

Berta Enrique Cornago and.

Iruñean, bi mila eta hemeretzi uztailaren hamaseian, arratsaldeko bostetan, bigarren deian, batzorde betearazlea elkartu da Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioaren egoitzan (Tutera karrika 20-3. solairua, Iruñea), eta bertan izan dira albo batean aipatutako batzordekideak. Bilkuraren buru Pablo Azcona Molinet jn. izan da, eta idazkaria, berriz, Berta Enrique Cornago andrea, erakundeko idazkaria, honakoa izanik,

GAI ZERRENDIA

- 1º.- Aurreko bilkurako aktaren informazioa eta akta onetsi.
- 2º.- NUKFko organoak berritzeari buruzko estatutu-aurreikuspenak.
- 3º.- Batzordeei eta kontseilu sektorialeiei buruzko informazioa.
- 4º.- Hiri-eremuak lehengoratzeko diru-laguntzetarako deialdia, 2019.
- 5º.- Udaltzain-lanpostuak baloratzeko azterlana.
- 6º.- Uztailaren 8an uholdeak kaltetutako toki-erakundeei laguntzeko jardunak.
- 7º.- Presidentearen informazioa.
- 8º.- Galde-eskeak.

Lehenik eta behin, presidenteak ongietorria adierazi die batzordekideei, eta zorionak eman dizkie kide guztiei aukeratuak izan direlako.

1. PUNTUA. Aurreko bilkurako akta onetsi

Bilerarako deialdiarekin batera aurreko bilkurako aktaren kopia bidalita, aldez aurretik aipatu akta irakurri beharrik gabe, presidente jaunak maiatzaren 14an egin zen batzorde betearazleko kideren batek oharren bat egin nahi ote duen galdetu du.

Bilkura horretan izan zirenek,

ERABAKI DA:

2019ko maiatzaren 14an egin zen bileraren aktaren zirriborroa onartzea.

2. PUNTUA. NUKFko organoak berritzeari buruzko estatutu-aurreikuspenak.

Gai-zerrendako puntuari heldu aurretik, presidenteak federazioari eta federazioak betetzen duen eginkizunari buruzko gainbegirada bat egin du. Esan du NUKF batez ere hautetsien topaleku bat dela, baita, ordea, toki-erakundeei zerbitzuak emateko erakundea ere. Azpimarratu ditu, halaber, burutzen dituen prestakuntza-planak eta kudeatzen duen lankidetzarako funtsa.

Jarraian, ekainaren 15az geroztik bizi dugun aldi baterakotasunaren berri eman du fecha, egun horretan eratu baitziren udal berriak. Epealdi horretan, eta estatutuek xedatutakoaren arabera, berrituak izan diren toki-erakunde guztietako ordezkariak beren kargua utziko dute, eta batzar nagusia egin arte, hautetsi izendatu berriek toki-erakunde bakoitzean aurreko ordezkariak hutsik utzitako karguak hartuko dituzte batzorde-kudeatzaile gisa.

Aurreikuspen horiei erantzuten die batzorde betearazleko kideen berritze partzialak. Jakinarazi da batzorde betearazleko kide diren aldetik eskubidea dutela bileretara joateagatik dieta bat jasotzeko, baita kilometrajea ere adostutako baldintzetan.

Presidenteak esan du, halaber, berriro ere alkate izendatu dutenez, NUKFaren presidente izaten jarraitzen duela hautetsi berriak izendatu bitartean. Alabaina, ez du jasotzen NUKFren presidentea izateagatik dagokion ordainsaria ekainaren 19az geroztik, egun horretan parlamentari-kargua hartu baitzuen.

Hurrengo batzorde betearazlearen bilera noiz izanen da esan du. Bilera horretan, ezohiko batzar

nagusia deituko da kargu berriak aukeratzeko eta batzar hori burutzeko.

Lehena irailaren 10ean izanen da, eta bigarrena, berriz, urriaren 4an.

ERABAKI DA:

Informazioa jasota dagoela

3. PUNTUA. Batzordeei eta kontseilu sektorialeiei buruzko informazioa.

Azaldu da NUKFk ordezkaritza duela 75 kontseilu eta batzordetan baino gehiagotan. Presidenteak esan du kontseilu horietan ordezkaritza izan duten hautetsi askok ordezkaritza hori utzi duten aldi iragankor honetan saiatuko garela deitu direnetara joaten saiatuko garela, bai ni (presidente moduan), bai NUKFren teknikariak.

Jarraian, azken batzorde betearazletik deitu diren batzordeei eta kontseiluei buruzko informazioa eman da, eta bertaratuei haien inguruan izan dezaketen informazioa eman zaie.

- **Toki Prestakuntzarako Batzorde Paritarioa (2019/05/14).**
- **Nafarroako Adingabearen Kontseilua (2019/05/15)**
- **Nafarroako LGTBI+ Kontseilua (2019/05)**
- **Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseilua (2019/05/16)**
- **Nafarroako Desgaitasunaren Kontseilua (2019/05/16)**
- **Lurraldearen antolamenduko batzordea (2018/05/16)**
- **Nafarroan emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean koordinatzeko jarraipen-batzordea (2019/05/17)**
- **Nafarroako Boluntaritzaren Kontseilua (2019/05/20)**
- **Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko gobernu-kontseilua (2019/05/21)**
- **Nafarroako Berdintasunerako Kontseilua (2019/05/21)**
- **Toki Araubideko Foru Batzordea (2019/05/22)**
- **Euskararen Nafar Kontseilua (2019/05/23)**
- **Miguel Indurain Fundazioaren Patronatua (2019/05/27)**
- **Nafarroako Landa Garapenerako Programako Jarraipen Lantaldea, 2014-2020 (2019/05/29)**

- Nafarroako Eskola Kontseilua (2019/05/29)
- Nafarroako Turismo Kontseilua San Fermin Mahaia (2019/05/31)
- Nafarroako Gardentasunaren Kontseilua (2019/06/03)
- Kultura Zuzendaritza Nagusia – Vianako Printzea Erakundearen eta Nafarroako Udalerrien arteko koordinazio-foroa (2019/06/04)
- Enplegu Babestua Sustatzeko Batzordea (2019/06/11)
- Toki Araubideko Foru Batzordea (2019/06/12)
- Nafarroako Kirol Kontseilua (2019/06/13)
- Koordinazio Batzordea Memoria Historikoaren arloan (2019/06/14)
- Hezkuntza Hitzarmenen eta Diru-laguntzen Batzordea (2019/06/18)
- Nafarroako Berdintasunerako Kontseilua (2019/06/19)
- Nafarroako Eskolatze Batzorde Nagusia (2019/06/19).
- Nafarroako Landa Garapenerako Programako Jarraipen Lantaldea, 2014-2020 (2019/06/24)
- Nafarroako Eskola Kontseilua (2019/06/26)
- FEMPEko Lurralde Kontseiluko Idazkaritza (2019/06/27).
- NILSAko Administrazio Kontseilua (2019/07/02)
- Nafarroako Gardentasunaren Kontseilua (2019/07/03)
- Erroldatzeko Kontseiluko Atal Probintziala (EIN) (2019/07/04)

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean egotea.

4. PUNTUA. Hiri-eremuak lehengoratzeko diru-laguntzetarako deialdia, 2019

Presidenteak “Hiri-eremuak lehengoratzeko diru-laguntzetarako deialdia, 2019” deialdiko oinarriak onartzea proposatu du (deialdiarekin batera bidali da).

NUKFren, “La Caixa” Fundazioaren eta Nafarroako Kutxa Fundazioaren arteko hitzarmenari jarraiki duela hainbat urtetatik hona egiten den deialdiaren edizio berri bat dela azaldu da.

2.000 biztanletik behera duten toki-erakundeei bideratutako deialdia da. Helburua da hiri-eremuak berreskuratzeko proiektuetan erabilitako materialak finantzatzea; betiere, eta oinarrieta zehaztutakoaren

erabera, Gizarte Eskubideen Departamentuak eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak onartutako deialdien barruan kontratatutako pertsonen parte hartu badute.

Aukeratutako proiektuek diru-laguntza bat jasoko dute, zuzkidura ekonomikoak ahalbidetuko duen inbertsioaren portzentajearen. Gehienez ere 2.500 euroko muga ezarrita dago.

Deialdi hau ebazteko, ebaluazio-batzorde bat eratuko da NUKFren barnean.

Oinarriak onartuta, proiektuak aurkez ditzaketzen erakunde guztiei horren berri emanen zaie. Aurkezteko epea irailaren 28an amaituko da.

ERABAKI DA:

“Hiri-eremuak lehengoratzea, 2019” izeneko deialdiko oinarriak onartzea, aktari eranskin gisa atxikiak.

5. PUNTUA. Udaltzain-lanpostuak baloratzeko azterlana.

Presidenteak azalduenaren arabera, ekainaren 19ko Foru Legea eta udaltzainen eta polizia-zerbitzuen ordainketa-erregimen berria onartu izanaren ondorioz, udaltzainak edo agenteak dituzten udalentsako informazio-jardunaldi bat burutu zen. Jardunaldi horretan, eta ondoren, NUKFk lege berriaren araberalanpostuaren osagarritasun-portzentajea zehaztu ahal izateko beharrezkoa den lanpostuen balorazio-azterketa bat lantzea eskatu zuen.

Hori horrela, “Talentis” enpresari eskatu zitzaion azterketa hori egitea ekainaren bukaerarako. Azkenik, azterketa atzeratu egin da, eta berriki entregatu digute.

Azterketa hori zabaldu aurretik azterketa egin duen enpresak eta NUKFko teknikariek aurkezpen bat egitea komenigarria litzatekeela azaldu da. Data kontuak hartuta, aurkezpen hori irailera gibelatuko da. Hasiera batean, irailaren 3rako litzateke.

ERABAKI DA:

Informazioa jasota dagoela

6. PUNTUA. Uztailaren 8an uholdeak kaltetutako toki-erakundeei laguntzeko jardunak

Presidenteak uztailaren 8an Tafallan eta Nafarroako Erdialdean gertatutakoaren inguruan egindakoaren errepaso egin du. Esan da horren berri izan eta berehala posta bana bidali zitzailla kaltetuei, laguntza eta aholkularitza emateko.

Geroztik, udalen batek laguntza eskatu digu Estatuari gertatutakoa babes zibileko larrialdi gisa har dezala eskatzeko.

Jakinarazi da, halaber, Tokiko Inbertsio Planen barruan kontu-sail bat dagoela larrialdietarako. Horren barnean, burutu beharreko hainbat jardun sar daitezke. Toki Administrazioako Departamentuarekin hitz egin dugu, eta posta bat bidaliko diegu kaltetuei. Esango diegu laguntza horiek eskatzeko epea uztailearen 22an bukatzen dela.

Kalteei aurrea hartzeko edo horiek ahal denik eta txikienak izan daitezten, NUKFk uholde-planak eta horien berrikuspena sustatuko ditu. Presakuntza emanen die hautetsiei jakitun izan daitezten dauden arriskuri buruz. Halaber, Gobernua premiatuko du beharrezkoak diren plan guztiak finantza ditzan eta larrialdi-egoeretan toki-erakundeek jardunetarako beharrezkoa den koordinazioa ezartzeko.

Jakinarazi da, halaber, Toki Araubideko Foru Batzorde bat deituko dela: udalerrri kaltetuak zehaztuko dituen, eta tokiko zergetan kaltetetuentzako hainbat salbuespen eta hobari ezarriko dituen, eta halaber, udalei dagozkien konpentsazioak zehaztuko dituen foru-agindua bideratzeko ahal denik eta azkarren.

Batzorde horretan izendatutako kide batzuek ordezkariak izateari utzi diotenez, eta areago, ordezkaten zituzten toki-erakundeetako ordezkariak izateari ere utzi diotenez, Toki Administrazioari proposatu zaio egungo ordezkariak deitzea, bilera egin eta beharrezkoa den partaide-kopurua lortze aldera.

Horrez guztiaz gain, presidentearen iritziz, komenigarria litzateke batzorde betearazleak bere iritzia ematea pasa den uztailearen 8an gertatutakoaren inguruan, eta horretarako, ndorengo akordioak hartzea proposatu du:

Lehena. Uztailearen 8ko uholdeek kaltetutako udalerrri eta pertsona guztiekiko babesa eta elkartasuna adieraztea.

Bigarrena. Kaltetutako udalerriek behar iza ditzaketan aholkularitza- eta laguntza-tresnak ematea.

Hirugarrena. Nafarroako Gobernuari eskatzea aplikatu dezala uholdeek eta bestelako gertakari naturalek eragindako kaltetutakoei laguntzeko neurriak erregulatzen dituen araudia. Halaber, ahal denik eta azkarren zehaztea zein diren kaltetutako udalerrriak, kaltetutako udalerriek eta biztanleek jaso ditzaketan laguntzak eta konpentsazioak, eta horretarako bete beharreko epeak eta prozedurak.

Laugarrena. Uztailearen 8an Foru Erkidegoan izandako uholdeek kaltetutako udalerriek aurkeztutako eskaerei babesa ematea, eta Estatuak Gobernuari premiatzea eskaera horiei erantzun diezaion, eta ahal denik eta azkarren zonaldea babes zibileko larrialdi batek larriki kaltetutako eremu izenda dezan.

ERABAKI DA

Akordioak proposamenaren terminoetan onartzea, eta organo eskudunei helaraztea.

7. PUNTUA.- Presidentearen informazioa.

Presidente jaunak honako gai hauei buruzko informazioa eman du:

- Joko- eta apustu-aretoen arazoarekin loturik egindako esku-hartzeak. Batzorde betearazlearen barruan arazo horren inguruan hainbat esku-hartze egin direla jakinarazi du. Nafarroako Joko Kontseiluan NUKFko ordezkari bat egotea eskatu dugu, eta bien bitartean, eginen diren bileretan eta lan-mahaitan parte hartzea. Araudia aldatu beharra dagoela ere adierazi da, ikastetxeen eta establezimendu horien arteko gutxieneko tarteak gehitzeko, baita publizitatea mugatzeko ere.
- NUKFko langileen ordainsarien igoera: Nafarroako herri-administrazioetarako aurreikusitakoaren arabera, % 0,25.
- NUKFaren prestakuntza iraunkorreko plana. Datozen egunotan izena emateko epea zabalduko da. Aurten 155.000 euroko zuzkidura edukiko du. Halaber, irailean hautetsi izendatu berrientzako ikastaroak paratuko dira martxan.

ERABAKI DA

Informazioa jasota dagoela.

8. PUNTUA.- Galde-eskeak

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, presidente jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko seirak eta hogeita hamar direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut, eta presidentearekin sinatu dut.

PRESIDENTEAREN ONIRITZIA

IDAZKARIA

Pablo Azcona Molinet jn.

Berta Enrique Cornago and.